OSTIRALA
txintxarri

756. zk.
2009-02-06
LASARTE-ORIA

www.txintxarri.info



Juanjo Urbieta *La justicia como metodo para ser feliz* hitzaldia eskaini zuen Emakumeen Zentro Zibikoan.

# Justizia eta zoriona

## Erantzunkizuna eta erruaren arteko desberdintasuna aztertu zuten Emakumeen Zentro Zibikoan

*La justicia como metodo para ser feliz* hori izan zen asteazkenean Emakumeen Zentro Zibikoan Juanjo Urbieta garatze pertsonaleko orientatzaileak eskaini zuen hitzaldiaren izenburua. Emakume ugari bildu ziren bertan eta adi jarraitu zituzten Urbietaren azalpenak, baita galderak egin ere. Eta, hala nola, erantzunkizuna eta erruaren arteko desberdintasunk aztertu zituzten. •



Ikastetxeetan hasi dira haurren aurrematrikulazioarekin /4-5

KULTURA ▮ 3

**Asteburu musikala izango da Sara bakarlariarekin eta Ttakuntronik zirkuituarekin**

GIZARTEA ▮ 3

**Sahararen aldeko Euskal Karabana otsailaren amaieran abiatuko da**

KIROLA ▮ 6

**Santos Uribe garaile Euskadiko Txapelketan**

## Palestinako egoera aztergai

Yasmin Hawari eta Imad Alsoos *Biladi,* Bilboko Palestinar kultur guneko kideek Palestinako egoeraren berri eman zuten asteazkenean Ezker Batuak eta Idi Ezkerra fundazioak antolatutako hitzaldian. Ezker Batuaren egoitzan egin zen hitzaldian, Mikel Arana Gipuzkoako zerrenda buruak egin zituen aurkezpen lanak. Hawari eta Alsoosek *Biladi* hitzaren esanahiak aztertu -nire lurra eta apartheid eremua-, Palestinan gaur egun bizi den egoera eta honen aurrekari historikoak azaldu zizkieten bertara hurbildu zirenei. •




Arg: Txema Valles



## Zorion-agurrak



**Gaizka**
Zorionak zure lehenengo urtebetzean. Eneritz eta gurasoen partetik.



**Mikel**
Zorionak arreba eta gurasoen partetik. Zazpi muxu handi.



**Asier**
Zorionak eta hamar muxu haundi, aita, ama, Josu eta familiaren partetik.



**Maren eta Liher**
Zorionak maitiak! Muxu haundi pilo bat biontzat etxekoen partetik.



**Paula**
Zorioanak lehenengo urtebetetzean!! Guraso eta familiaren partetik. Muxu asko printzesa.



**Blasa**
Zorionak amona, larogeita ..... muxu. Asko maite zaitugu. Zure familiaren partetik



**Ane Miren**
Fresazko hiru muxu eta ondo ondo pasa familiarekin eta lagunekin. Muxu asko



**Enaitz**
Zorionak Txikote zure 2. urtebetetzean. Bi muxu goxo aitatxo, amatxo eta arreba.



**Imanol**
Zorionak maitia!! Lasai 25 urte ez dira ezer, okerrago izango dira 50ak. Muxu pottolo bat! Ainhoa.



**Iker**
Zorionak eta hiru muxu potolo. Pastel puskatxo bat gorde! Unaxen partetik.



**Aimar**
Zorionak Aimar!!! Lau muxu potolo zure familiaren partetik.

## Azoka txikia

### Eskaintza immobiliarioak

• Logela bat alokatzen da etxebizitza batean, Zumaburuko auzoan, Lasarte-Orian. Harremanatarako zenbakia, 600 612 085

• Etxea alokairuan Lasarteko erdialdean. Eraikuntza berria, 30 metroko terraza eta bista latzak. 2 logela, egongela-komedorea bat eginda, sukaldea trasteroarekin. Eguzkitsua: etxeko gela guztiek terrazarako irteera dute. Tel.: 946563345, arratsaldez, Axier.

• Urbarten garaje marra bat alokatzen da. Harremanetarako zenbakia: 943 363 524

• Seat Alhambra 110 zaldi, 98. Urtekoa, extra guztiekin eta oso ondo zainduta saltzen da. Telefonoa: 667 439297

• Logela bat alokatzen da Lasarte-Oriako erdialdean. Pertsona garbia eta ez erretzailea bilatzen da. Alokairua 230 euro dira eta gastuak aparte. Harremanetarako zenbakia, 686 932 714.

### Salerosketak

• Salgai Renault Laguna 2.2 TD autoa. Matrikula SS-AY da, zaindutakoa, egoera onean. Tel.: 659 430 640.

• Inauteritako mozorroak salgai ditut: Asterix-Obelix, iratxoak, etab. Informazio gehiago 638421713 telefono zenbakian.

### Lan-eskariak

• Eskola partikularrak. Elektronikako Industria-Ingeniaria: matematika, fisika, elektrizitate, elektronika eta programazioko eskola partikularrak ematen ditut. 690113447 (18:00etatik aurrera)

• Pertsona bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, bai haur baita aiton-amonak zaintzeko, e.a. Tel.: 943 361985 edo 659 590217

• Neska bat eskaintzen da sukaldari laguntzaile gisa aritzeko lanean edo haurrak zaintzeko. Tel.: 669 217 126.

**Oharretarako:**

Tel.: 943 366858 • Geltoki kalea 4 • txintxarri@ttakun.com
www.txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com

## Guardiak

**Ostirala, 6**
Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529
**Larunbata, 7**
Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774
**Igandea, 8**
Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774
**Astelehena, 9**
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549
**Asteartea, 10**
Urbistondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366567
**Asteazkena, 11**
Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652
**Osteguna, 12**
De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

## Telefonoak

### Osasuna / Larrialdiak

| | |
|---|---|
| Osasun Zentroa | 943 007960 |
| DYA | 943 464622 |
| Gurutze Gorria | 943 363953 |
| Udaltzainak | 943 362442 |
| Ertzaintza | 943 288888 |
| SOS Deiak | 112 |

### Udala

| | |
|---|---|
| Erregistroa | 943 376055 |
| Euskarako Zerbitzua | 943 376184 |
| Kiroldegia | 943376182 |
| Kulturetxea | 943376181 |
| Bakezko epaitegia | 943371629 |
| Zerbitzu Sozialak | 943376179 |
| Zentro Zibikoa | 943363958 |
| KIUB | 943361605 |
| Udal euskaltegia | 943361621 |
| Obrak eta zerbitzuak | 943 376180 |



### Jaiotzak

June Hernández Sánchez, urtarrilaren 30ean.

Aroa Leforestier Godoy, urtarrilaren 27an.



### Heriotzak

Tessy Omozuwua, urtarrilaren 29an 30 urte zituela.

Juana Mª Eguibar Echeverria, urtarrilaren 21ean 54 urte zituela.

## Gazte Informaziorako Bulegoa

Manuel Lekuona kulturetxea • Tel.: 943 376181

www.gipuzkoangazte.info

**Lorazain laguntzaile bat Usurbilgo udalerako**
Usurbilgo udalean lorazain laguntzaile lanpostua betetzeko oposizio-lehiaketa. Bete beharrekoak: eskola ziurtagiria edo baliokidea eta B gidabaimena izatea. Izena emateko azken eguna otsailaren 12a da. Informazioa edo izena ematea Usurbilgo udalean, Jose Martin Sagardia plaza, z/g; tel.: 943 371951,

**Beasaingo Loinatz musika-eskolaren LEP 2009rako**
Trikitixa eta pandero irakasle baten eta kantu-irakasle baten lanpostua betetzeko oposizio-lehiaketa . Informazioa eta izen-ematea Beasaingo udalean, Gipuzkoako plaza, z/g, tel.: 943 028050, faxa: 943 028051, e-maila: udala@beasain.net.

**Gizarte Zerbitzuetako teknikari bat Lazkaoko udalerako**
Amatasun-baja dela eta, Gizarte Zerbitzuetako Teknikari lanpostua betetzeko deialdia. Bete beharrekoak: Gizarte Zerbitzuetan diplomatura edo Gizarte Langile agiria edukitzea eta EGA edo 3 H.E. Azken eguna otsailaren 13a. Informazioa: Lazkaoko Udalean, Euskadi Enparantza, 1ean, tel.: 943 088080; faxa: 943 085194; udala@lazkao.net.


**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**

Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea

AIRE, AIRE !!! EUSKARARI
Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

**Argitaratzailea:** Ttakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • **Legezko gordailua:** SS513/93 • **ISSN:** 1134-0053 • **Inprimategia:** Zeroa Multimedia, S.A.
**Aleak zenbakiko:** 7.300 • **Erredakzioa:** txintxarri@ttakun.com • **Publizitatea:** publizitatea@ttakun.com • **Administrazioa eta banaketa:** administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.
**Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.**



Irudian, iazko abenduko Ttakuntronikeko emanaldia Obelix tabernan.



Sara bakarlariak kulturetxean eskainiko du kontzertua gaur.

# Estilo askotako musika emanaldiak aukeran gaur eta bihar

TXINTXARRI

**Bihar lau kontzertu izango dira Ttakuntronik zirkuituaren baitan, 22.30etik aurrera. Horretaz gain, Sara musikari iruindarrak kultur etxean joko du gaur iluntzean.**

Hilero bezala, Lasarte-Oria dantzaleku bihurtuko da bihar, Ttakuntronik zirkuituari esker. 22.30ak eta 03.00ak bitartean era eta jatorri askotako musikaz gozatzeko aukera izango dute lasarteoriatarrek herriko hainbat tabernatan. Musutruk, gainera, agertokietara sarrera doakoa izango baita, ohi bezala.

Abend kafe antzokian, Iñaki Brighton musikariak R&B, soul, revival mod eta beste estilo batzuk nahastuko ditu bere emanaldian. Jalgi kafe antzokian, berriz, Zilö ElekTropezón Dj-ren musika elektronikoa izango da entzungai. Jamaikar estiloa gustuko dutenek ere izango dute zereginik, Naken Selektor-ek joko baitu Obelix tabernan. Siglo 20en, bestalde, DZ izango da; hip hop, soul eta funk doinuak eskainiko ditu.

## Sararen kontzertua

Biharkoaren zain egon gabe, Xpressionk!!! Zirkuituak ere badu zer eskaini gaur gauerako. Xpression elkarteak eta Gazteri eta Festa sailak antolatuta, Sara kantautoreak kontzertua eskainiko baitu.

Iruñeko musikagileak, gitarra lagun duela, abesti propioez nahiz bertsioez osatutako emanaldia eskainiko du. Gainera, aurtengo bere lehen kontzertua izaki, gogotsu eta bere entzulegoaren aurrean abesti berriak jotzeko asmoz datorrela iragarri du.

Sararen kontzertua gaur 20:00etan izango da, Manuel Lekuona kultur etxeko kafetegian; eta Xpressionk!!! Zirkuituan ohikoa den bezala, sarrera doakoa izango da.

Abeslari gazteari buruzko informazio gehiago erakusgai dago *www.lanubedesara.com* webgunean.

Helbide horretan bertan kantautore iruñear honen musikaren lagin bat entzuteko aukera ere badago.•

## Euskal Karabana, abiatzeko prest



Sahararen Aldeko Euskal Karabanak material mordoa bildu du aurten ere, eta lasarteoriatarrek izan dute zerikusirik horretan. Guztira 2.000 kilo batzea lortu dute aurtengo Karabanaren arduradunek. Hala ere, ziurrenik egoera ekonomikoaren ondorioz, iaz baino gutxiago izan da. 2008an 3.500 kilo bildu zituzten guztira gutxi gorabehera, konpresak kontuan izan gabe.

Antolatzaileek eskerrak (edo "Shucran", sahararrek dioten bezala) eman nahi izan dizkiete Lasarte-Oriako eta Añorgako herritarrei, Landaberri Ikastolari, Sasoeta-Zumaburu Ikastetxeari, Lasarte-Usurbil Institutuari, Donostiako Jesusen Alabak Ikastetxeari, Añorgako Amassorrain Ikastolari, Emakumeen Zentro Zibikoari, Michelin Kooperatibari, Arsuaga Autozerbitzuei, Urbil Merkataritza Guneari, Lasarte-Oriako Udalari, Ttakun Elkarteari, TSST autobus konpainiari eta Dia, Super BM, eta Eroski supermerkatuei.

Karabana otsailaren 14an edo 21ean abiatuko da Saharara, Donostiatik. •

## Kale Nagusiko ONCEko kabina lekuz aldatu dute

Egun gure herrian aldaketa dezente burutzen ari dira, esate baterako, eraikuntzen eraistea eta eraikitzea.

Astearte goizean, Kale Nagusian dagoen ONCE erakundeko kabina aldatu zen lekuz, izan ere, errotonda bat egingo dute Kale Nagusian, Ola kalea eta Beko kale lotzeko.

### Okendo ixtea

Bestalde, astearte eguerditik asteazken arratsaldera Okendo plaza itxia egon zen errepidean mantenimendu lanak egiteko.

Langileek aparkaleku eta ibi marrak eta zebra-bideak margotu zituzten eta margoa lehortu bezain pronto ireki zen Okendoko plaza. •



BIGARREN INGURUBIDEA

## Leherketa larunbatean

Donostiako Bigarren Ingurubidearen lanak direla eta, otsailaren 7an leherketa burutuko da, N-I eta Teresategi baserriaren artea. Udaletxeak jakin arazi digunez, ordutegia 14:00ak eta 16:00ak artean, gutxi gorabeherako, izango da. •

KONTZERTUA

## Errepikatzeko esperientzia

Urtarrilaren 31an larunbata 19:00etan, Irungo Txorimaloak Soinu Taldea eta Donostiako Easo Musika Eskolako trikitixa eta panderoko ikasleekin batera, Lasarte Oriako Musika Eskolako trikiti eta esku soinuko ikasleek kontzertua eskaini zuten Hondarribiako Amute auzoko bizilagun elkartean.

Lasarte-Oriako Musika Eskolako ikasleek kanta herrikoi eta ezagunak eskaini zituzten kontzertuan, hala nola, *Aitorren hizkuntz zaharra* edo *Egun da Santimamiña*.

Kontzertua bukatzeko, bertan parte hartutako guztiek *Egia da* jo zuten.

Kontzertua bukatuta, guztiek mokadu bat jateko aukera izan zuten. Guraso, irakasle eta zentro desberdinetako ikasleen artean sortutako giroa primerakoa izan zen. Eta talde guztiak, berriro ere honelako esperientzia laster errepikatzekotan geratu ziren. •

GAZTE AISIA

## Futbolin eta mahai tenis txapelketa Ostarteren eskutik

Ostarte Gazte Taldeak larunbata honetan 14 eta 17 urte arteko gazteentzako aisia proposamena aurkezten du berriro ere.

Gazte Taldearen ideia jokoetan oinarritutako aisia eskaintzea da, hala nola, bideo-jokoak, mahai-tenisa, edo futbolina. Gainera, oraingoan futbolin eta mahai teniseko txapelketa antolatu dituzte.

Era honetara, aukerazko aisia ekimen honetan gazteek une dibertigarri eta atsegina igaro ahalko dute, 22:00ak eta gaueko hamabiak artean, Zumaburuko eliza azpiko lokalean.

Gaueko ekitaldien programak iaz hasitako bidea jarraitzen du. Ostartek egun gazteentzat herrian dagoen gaueko aisialdi eskaintza urria ikusirik, taldeak Lasarte-Oriako gazteentzako gunea eskaintzen du, non giro atseginean eta onuragarrian egon daitezen. •

**Berta Egitegi eta Koru Garmendia** Sasoeta-Zumaburu ikastetxea

# ‘Zumaburuko berrikuntzek konfiantza ematen dute”

**Zein da ikastolaren eskaintza?**
Eskola publiko bat gara, eskola irekia, gure proiektuan esaten dugun bezala euskara eta euskal kultura bermatzea da ildo nagusia. Eta dudarik gabe pertsonak garatzea, ikasleak etorkizunari begira prestatzea, teknologia berrietan aritzea...

Aipatutako bost puntuetan garbi geratzen da zein den eskolako filosofia. Gainera, eskolan beti izan dugu garbi gure ikasleak herrian integratzea nahi dugula, eta herrian antolatzen diren gauza guztiak kontuan hartu eta haietan parte hartzen saiatzen gara. Ikastola herrian dago eta herri honetan parte hartu behar dugu. Euskara eta euskal identitatea ere lantzen dugu. Eta ez dugu bereizketarik egiten haur hezkuntzan. Tratamendu bera egiten diegu guztiei.

**Zein zerbitzu eskaintzen ditu Sasoeta -Zumaburuk?**
Berrikuntza bezala, jangela dugu Zumaburu eraikuntzan, eta 2 eta 5 urte artekoentzat da, hau da, Haur hezkuntzako umeentzat. Aurten hasi gara eta egunero-egunero 30-34 haur inguruan bazkaltzen dute bertan. Gehienak 2 urtekoak dira, deigarria dena. Oso pozik gaude, haurrak eta gurasoak ere gustura daude. Esperientzia bezala, lehenengo egunak gogorrak izan ziren. Guztia antolatzea izugarria izan zen, baina orain oso gustura gaude.

Aurten ere goiz txokoa jarri dugu eta bertan ere 2 urtekoak dira erabiltzen dutenak. Zerbitzu hauek gaur egun oso beharrezkoak direla uste dugu eta nabaritzen da. Eta garraioa ere badugu.

**Zein da zuen eskolaz kanpoko jardueren eskaintza?**
Eskola kirola eskola guztien antzera. Kirolarekin lotuta ere, kirol hasiera txikientzat. Gurasoek antolatuta marrazketa eta pintura egiten dute.

Eta aurten gauza berria antolatu dugu, 6. mailakoentzat soilik, astean behin eta eguerdian, bertsolaritza.

**Zein aurreikuspen duzue aurten? Iazko kopurua mantenduko al da?**
Ilusionatuta gaude, badakigu jangela izatea garrantzitsua dela. Aurrematrikula epea ireki berri dugu eta gurasoek jangelari buruz galdetzen dute.

Zerbitzuek egun garrantzia handia dute. Lehenik hezkuntza proiektuari eta euskal giroari begiratzen diote gurasoek eta behin hori lortzean zerbitzuei ematen diete garrantzia.

Iaz arazoak egon ziren aurrematrikula garaian. Sumatzen genuen jendeak Sasoeta Zumaburu ikastola ez zuela ongi ezagutzen eta iaz egiaztatu genuen. Baina gurasoekin bilerak egin ostean, batzuei mamuak desagertu zaizkie. Eta bi urteko haurren gurasoak gustura daudela uste dut.

Bestalde, haur kopuruak ezin du handitu, gu ia topean gaude eta. Gainera haur kopuru berdintsua dago, aurten eta iaz jaiotako haur kopurua antzekoa baita. Bi ikastetxeetan banatuta ez dago arazorik zertan egon behar.

**Gainera, obrak izan dituzue?**
Bai. Lanak egin dira, duela hiru urte argazki batzuk atera ziren mantentze lanak gaizki egiten zirela eta. Ikastolako egoera ez zen egokia. Duela bi urte, udaletxeak eta Eusko Jaurlaritzak, diru mordoa erabili zuten lanak egiteko eta konpondu ziren gaizki zeuden leihoak, komunak, etab. Badirudi jendea arazoekin geratu zela eta nabarmena izan zen urte horretan aurrematrikuletan.

Zumaburun eta hemen egindako lanekin oso pozik gaude. Oso gogorrak izan dira, baina oso pozik gaude. Zumaburuko berrikuntzek konfiantza ematen dute gainera. Bi gela gehiago egin behar ziren eta guztia berritu dute. Orain goiko pisuak berritzea falta da, baina hori haur kopurua handitzen den heinean egingo dute ziurrenik.

Gainera, Udaletxeak Zumaburuko terraza berritu du eta eskertzekoa da. Oso gaizki zegoen uraren ondorioz eta guztia aldatu dute. Honetaaz gain, Aste Santuan patioan maldatxo bat egingo dute irisgarritasuna hobetzeko eta eliza azpiko patioan dauden zutabeak estali dituzte. Polita eta txukuna geratu da.

**Gurasoen laguntza ere garrantzitsua da haurraren hezkuntzan...**
Ikastetxe honetan eta guztietan garrantzia du. Baina zer gertatzen da, parte hartze hori batzuetan ez dela nahikoa. Beti dago jendea, esate baterako, Gurasoen elkarteko jendea eta guraso batzuk asko inplikatzen direnak, baina bestei beti tira eta tira zabiltza gauzak egiteko.

Gainera, ekintza puntualetarako esperientzia desberdinak ditugu, Baina adibidez, dantza batzuk ikasteko aukera eman genien eta elkartu zen jendea; aurten ere, gurasoentzako euskara klaseak antolatu ditugu, zerotik hasten direnentzat eta kostata baina taldetxo bat sortu dugu. Aste honetan urtxintxa taldearekin ikastaro bat egin dugu eta taldetxoa lortu dugu ere.

Gurasoen inplikazioa garrantzitsua da, bai, oso. Baina lortzea zaila da. •

> “Sasoeta-Zumaburu ikastolan beti izan dugu garbi gure ikasleak herrian integratzea nahi dugula





**Jone Altuna** Hezkuntza Batzorde Burua

# ‘Helburua haurrek herrian ikas dezaten da”

**Zein da Hezkuntza batzordeko helburua?**
Gure helburua haurrek herrian ikas dezaten da eta, era berean, euskararen eredua bultzatzea. Horretarako, bi kanpaina egin ditugu, batetik 0-3 urtekoen eskaintza eta bestetik lehen hezkuntzatik DBHra igarotzen diren gazteei bestea. Guraso guztiei bidaltzen zaie etxera informazio hori.

**Eta ikastolentzat ekintza bereziak prestatzen dituzue?**
Bai. Esate baterako, ingurugiro arloan, LH5ko haurrentzat hiru eguneko jardunaldiak antolatzen ditugu Sastarrainen baserri eskolan, Zestoan.

Bestalde, kurtsoan zehar ingurugiroko programa dugu, non uraren prozesua, birziklapena, herriaren ohiturak, historia era kultura erakusten diren. Eskola orduetan egiten da eta kurrikulumean dago sartua.

Kurtso bukaeran, gainera, zer edo zer egiten dugu, hala nola, Andatza plazako Tren txikiko baporezko trena edo jokoak, erakusketak, marrazkiak, antzerkia, txotxongiloak...

**Zeintzuk dira aurrematrikula epeak? Eta aurreikuspenik egin ahal da?**
Ikastolak otsailaren 2tik 13ra egingo dute eta hautzaindegian, 0-3 urteko haurren aurrematrikulazioa maiatzean egingo da.

Bestalde, zaila da aurreikuspena egitea. Kopuru horiek aurrematrikula egin ostean jakingo ditugu.

**Udalak gainera jantokia eskaintzan du?**
Bai, horrela da. Michelinen dagoen udal jangelan 3 urtetatik 18rako haur eta gaztetxoek bazkaldu dezakete. Bertan bonoak daude egunero bertan bazkaltzen dutenentzat edo egun solteetan joateko.

**Udaran obrak egin dira ikastola desberdinetan, ezta?**
Guk 60 eta 40 esaten diogu, honek esan nahi du, %60a Eusko Jaurlaritzako hezkuntza ordezkaritzak ordaintzen duela eta %40ak udalak. Honi esker, lanak egin dira Sasoeta, Zumaburu eta Landaberrin.

Orain zentroz zentro begiratu da, beti baitaude arazotxoak, zerbait gaizki dagoena edo falta dena. Eta hori guztia aztertu dugu, txosten bat egin eta Eusko Jaurlaritzara bidali dugu. Eta hori ere 40-60 akordioaren barruan egiteko.

Gainera, lan hauei esker, Zumaburu ikastola berritu dugu, haurrak ongi egoteko eta, era berean, Sasoeta-Zumaburu ikastola indartu nahi izan dugu eta erakargarria egin. •

**Josu Garmendia** Landaberri ikastola

# “Aurrematrikulazioan lasai ibiliko garela uste dugu”

**Zein da ikastolaren eskaintza?**
Alde batetik hezkuntza proiektu bateratua ditugu 2 eta 16 urte bitartean, hiru zentroetan banatua. Garaikoetxean 7 edo 8 urtera arte egoten dira, Landaberri egoitzan, Hipodromoan dagoena, 7 urtetatik 12 urtera arte eta gero hemen behean berriro DBHko eraikuntzan 16 urte bitartekoa.

Hezkuntza aldetik, ingeles goiztiarra eskaintzen dugu 4 urtetatik gora, baita musika saioak ere espezialista batekin.

Azken bolada honetan talde handiak ditugu eta prozesua gela bi multzoetan zatitzea da, batetik euskara ezagutza ona dutenek euskara aberasten dute eta besteekin errefortzua egiten da ordu batzuetan. Honela askoz lan gehiago egiten da talde txikiagoak direlako. Gero LH1 mailara iristean taldeak nahasten dira irakurketa eta idazkera prozesua euskaraz egiteko.

Honetaz gain, premia berezik dituztenentzat heziketa bereziko irakaslegoa dago eta aholkularia ere badugu ikastetxe guztietan bezala.

**Zein zerbitzu eskaintzen ditu Landaberrik?**
Landaberrin dauden bitartean garraioa dute Lasartetik Hipodromoraino eta bi kilometrotatik gora bizi direnentzat ere garraioa dago.

Goizean 8:00etatik 9:00etara, harrera zerbitzua dago, gurasoa elkarteak antolatua eta bertan bi zaintzaile daude.

Bestalde, jangela udalekoa da eta horregatik langile batzuk datoz haurrak erameteko. Bost urtera arte autobusez doaz, LH1 eta LH2 mailakoak, berriz, oinez. Landaberrin dauden zaharrenak autobusez doaz Hipodromoko zubiraino eta gero oinez jangelaraino eta txikienak ateraino eramaten dituzte.

**Zein da zuen eskolaz kanpoko jardueren eskaintza?**
Guraso elkarteak antolatuta hainbat eskolaz kanpoko jarduera ditugu antzerki eskola, kirola, gurasoentzat ere guraso eskola eta abesbatza. Eta gero kurtsoan zehar euskara transmisio ikastaroak antolatzen ditugu, esate baterako haurrei ipuinak kontatzeko edo abestiak ikasteko. Hauek 2 eta 3 urteko haurrak dituzten familientzat da normalean.

**Zein aurreikuspen duzue aurten? Iazko kopurua mantenduko al da?**
Iazko urtea oso berezia izan zen, guk ordura arte 2 urteko 5 gela eskaintzen genituen eta hortik gora lau. Hezkuntza sailak arau bat aldatu zuenez, iaz behartuta ikusi ginen hiru urteko haurrei bost gela eskaintzera, haur kopuru handia kanpoan gera ez zedin. Beraz, hiru urteko 5 gela genituenez, 2 urteko ak bira murriztu genituen. Honek zer suposatzen du, aurten 2 urte 72 plaza ditugula, iaz 90, 3 urtekoak ere 4 gela ditugu eta 4 urteko bost. Hala ere, pentsatzen dugu aurten lasai ibiliko garela. Sasoeta Zumaburun dagoen txikientzako jangela erakargarria da gurasoentzat, eta pentsatzen dugu bi ikastetxeen artean aurrematrikula orekatuko dela. Jaio kopurua antzekoa izan da azken lau urteetan eta gure ustez ez da aldaketa handirik egongo.

**Gainera obrak izan dituzue?**
Aurreikusiak, Garaikoetxean konponketa txikiak eta estoldak besterik ez eta Landaberrin hiru obra handi zeuden, batetik berogailua, galdara aldaketa eta zenbait lekutan plakak jarri beharra. Ongi planifikatu eta udazkenean egin zen. Bigarrena horrekin batera, leiho aldaketa. Hau bukatzear dago. Hirugarrena frontoia da, uralitazko teilatua du eta haizea dela eta, zati batzuk desagertu dira eta hori konpontzeko aztertzen ari dira.

Bestalde, Hezkuntza sailean onartu dute dagoeneko Landaberrien egokitze prozesua, elbarrientzat egokitzea. Igogailua jarriko da eta gero malda bat egingo dute soinketa gelara igarotzeko. Eta, azkenik, gasolioaren depositua.

**Gurasoen laguntza ere garrantzitsua da haurraren hezkuntzan...**
Ezin dugu funtzionatu gurasorik gabe. Eez gure lana ona edo txarra delako, hirurak alde batera egin behar dugulako baizik. Irakasle, ikasle eta gurasoek egin behar dute elkarrekin lan. Hezkuntza irakaslearen lana da, baina hezkuntza horretan gero eta gauza gehiago sartzen dira.

Bestalde, Guraso elkartea dago. Honetan lan egiteko borondate asko dago eta gauzak antolatzen dituzte

Gertatzen dena da, Haur Hezkuntzan bakarrik 150 bat guraso daudela, guraso asko dira eta denak ados egotea zaila da. •

> “Guraso elkarteak antolatutako hainbat eskolaz kanpoko jarduerak ditugu antzerki eskola, kirola., etab.











Aitor AZKONOBIETA

# Santos Uribe txapeldun Euskadiko Txapelketan



Santos iazko Euskadiko Txapelketan.

Lasarteoriatar batek urrezko domina eskuratu zuen urtarrilaren 31n Gasteizen egin zuten Euskadiko Beteranoen Atletismo Txapelketan.

Santos Uribe Zumeatarrak taldeko atletak martxako bost kilometroko ruta lasterketa irabazi zuen, 70 eta 75 urte artekoen kategorian. Guztira hiru beteranok hartu zuten parte proba horretan, eta bera izan zen azkarrena adin tarte horretan.

## Espainiako txapelketa

Hurrena Espainiako Txapelketan ateratzeko asmoa du Uribek, hamar kilometroko martxa lasterketan; Murtzian izango da hori, datorren martxoaren 1ean. "Ordubete eta zazpi minututan egiten badut, ondo", esan du.

Atleta beteranoa duela hamar urte hasi zen martxako lehietan parte hartzen. Aurretik luzera erdiko lasterketetan parte hartzen zuen, baina belaunetan arazoak izan eta korrika egiteari utzi behar izan zion.

Aurten denboraldia ekainera arte luzatuko du eta lesiorik ez duen bitartean lehiatzen jarraitzeko asmoa duela aitortu digu Uribek.

Egun 74 urte dituen atleta honek aurki kategoria aldaketa izango du eta irabazteko are aukera handiagoa izango du orduan.•

# Elizalde saririk gabe

Beñat Elizaldek ez zuen zorte handirik izan joan den asteburuan A Coruñan (Galizia) jokatu zuten Espainiako Judo Txapelketan. Elizalderi Pablo Rodriguez andaluziarraren aurka egokitu zitzaion lehen lehia, eta ez zuen hura garaitzerik izan. Lasarteoriarrak ez zuen pozik bukatu, baina hura ahaztu eta Espainiako 23 Urte Azpikoen Txapelketa prestatzen hasi beharko du orain.

Bestalde, Leire Zubizarreta eta Esteban Martinez Madrilen izango dira datorren asteburuan, Kadeteen Espainiako Irekian. •



Irudian Beñat Elizalde lehian buru-belarri.

# Emaitza onak bola-jokoan



Bolotan aritzen direnen taldeko argazkia. Arg.:Txema Valles

Gipuzkoako bikote txapelketako 2. bolo jaurtiketa burutu zen lehengo asteburuan Añorgako bolatokian. Bertan, 56 bolarik parte hartu zuten eta Ostadarreko bolo-joko sailekoak bertan egon ziren lehiatzen.

Giro onean, lehia handia egon zen, lau bolarik lortu baitzuten puntuaketa handiena, 48 birla. Horietako bat, Josean Rebe Ostadarreko kidea izan genuen.

Baina berdinketa hausteko jaurtiketetan, J. M. Etxebeste gailendu zen eta Josean Rebek bigarren postua eskuratu zuen. •

## Kiroletako oharrak

**XV. Pala Txapelketa**

Ostadarrek jakinarazi nahi du XV. Pala Txapelketarako izena emateko epea zabalik dagoela otsailaren 6ra arte. Beraz, parte hartu nahi duten bikoteek Ostadarreko bulegotik pasa behar dira izena emateko, astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 20:00etara, edo 943360433 telefono zenbakira deituta.

## Kiroletako agenda

**FUTBOLA**

### Larunbata 7

**10:00etan,** Ostadar-Elgoibar (Infantil Txiki Kopa) Michelinen.
**15:30ean,** Texas Lasartearra-Ikasberri (II. Erregionala, kopa) Michelinen.
**17:15ean,** Texas Lasartearra-Amara Berri (I. Jubenila, kopa) Michelinen.

---

**11:30ean,** Allerru-Ostadar (Kadeteen Ohorezko maila, kopa) Plazeta, Lezon.
**11:30ean,** Hondarribia-Ostadar (Infantilen Ohorezko maila, kopa) Ondartza, Hondarribin.
**12:00etan,** Beasain-Ostadar (Emakumezkoen KDT F-11, txapeldunen fasea) Igartza, Beasainen.
**15:45ean,** Hondarribia-Ostadar (Emakumezkoen Liga, kopa) Ondartza, Hondarribin.

### Igandea 8

**10:00etan,** Ostadar-Sporting de Herrera (Alebinak) Michelinen.
**11:15ean,** Ostadar-Gazteak (II. Erregionala, igoera fasea) Michelinen.

---

**15:30ean,** Intxaurrondo-Ostadar (I. Jubenila, igoera fasea) Matigoxotegin.

**FUTBOL 8**

### Larunbata 7

**12:00etan,** Lasarte BHI-Amara Berri (eskolarteko infantilak) Michelinen.

**FUTBOL 7**

### Larunbata 7

**18:00etan,** Asyges Gestoria Martin-Niasa-Corpa (III. Maila) Zubietan.

**ARETO-FUTBOLA**

### Ostirala 6

**20:00etan,** Beti Arin-Aldaz H.K. (Euskal Liga) Landako kiroldegia, Durangon.

### Larunbata 7

**17:45ean,** ISU leihoak-Eskolapioak (Gipuzkoako Liga, I. Maila) Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA
*Michelin edo frontoian*
**10:00etan,** Mayi-Danena
**10:50ean,** Katanga-Oria kris.
**11:40ean,** Obelix-Morrison
**12:30ean,** Ainhoa-Lurra XXI
**13:20etan,** Okela-Jordi
**14:10ean,** Tragoxka-Epel
**15:00etan,** Oria Txiki-Izkiña
**15:50ean,** IOB H.K.-Biyona

### Igandea 8

HERRIKO TXAPELKETA
*Michelin edo frontoian*
**10:00etan,** ISU Leihoak-Izarra
**10:00etan,** Buenetxea-Ilargi
**10:50ean,** Viña del Mar-Siglo XX

**SASKIBALOIA**

### Igandea 8

**17:30ean,** Errotaundi ISB-Ainhoa (Gizonezko seniorrak) Azpeitian.

**JUDOA**

### Larunbata 7

**Asteburu osoan,** Leire Zubizarreta eta Mario Garrido LOKEko judokek Espainiako Open Kadetean parte hartuko dute, Madrilen.

**PILOTA**

### Larunbata 7

**12:15ean,** intza-Eibar (Eskuz binaka II. Seniorra) Michelinen.

---

**16:00etan,** EPLE-Intza 1 (eskuz binaka, infantilak) Urnietan.
**16:00etan,** Intza 3-Añorga (eskuz binaka, infantilak) Astigarragan.
**16:00etan,** Antiguako 2-Intza 2 (eskuz binaka, infantilak) Michelinen.

**ATLETISMOA**

### Larunbata 7

**16:30ean,** Asteburu osoan, LOKEko atletak Absoluto mailako Euskadiko txapelketan lehiatuko dira, Anoetako belodromoan.

**BOLA-JOKOA**

### Igandea 8

**10:00etan,** Ostadarreko bolo sailak bikotekako txapelketan parte hartuko du,.Mutiloan.

## Egunero

**Erakusketa**
ZILÖ, herriko artistaren “The Artificial Smile Company" margo erakusketa. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan zehar.



**Erakusketa**
VIDAS MINADAS, 10 AÑOS DESPUES, Gervasio Sanchezen argazki erakusketa. Astelehenetik ostiralera irekia. Kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.

## Larunbata, 7

**DJen emanaldia**
ZILÖ herriko DJaren emanaldia berak jarritako erakusketa inauguratzeko. Ttakuntronik zirkuituaren barruan. Jalgi kafe-antzokian, 0:00etatik 03:00etara.

**DJen emanaldia**
NAKEN SELEKTOR (Jamaican Style) Djaren emanaldia. motak jorratzen ditu. Ttakuntronik zirkuituaren barruan. Obelix tabernan, 22:30etik 01:30era.



## *Bakarlari bat izango da gaur kulturetxeko kafetegian*

SARA bakarlariaren kontzertua Udaleko Gazteria Sailak eta Xpressionk zirkuituak antolatuta. Iruñako kantautorea dugu Sara, eta bere abesti propioak eta beste batzuen zenbait bertsio konbinatzen dituen emanaldia aurkeztuko du kulturetxeko kafetegian.

GAUR OSTIRALA 20:00ETAN
KULTURETXEAN
DOAN

**DJen emanaldia**
DZ Djaren emanaldia: Hip-Hop, Soul, Funk, Bassk Power... Ttakuntronik zirkuituaren barruan. Siglo XX tabernan, 0:00etatik 03:00etara.

**DJen emanaldia**
IÑAKI BRIGHTON Djaren emanaldia: R&B, Soul, Revival Mod, Bugaloo... Ttakuntronik zirkuituaren barruan. Abend kafe-antzokian, 0:00etatik 02:00etara.



## Igandea, 8

**Zinea**
Madagascar 2 haurrentzako filma. Sarrera: 3, 15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan.

## Ostirala, 13

**Jam sesioa**
STAY BLUES taldea izango da gonbidatu berezia hileroko jam sesiora. Jalgi kafe-antzokian, 22:30ean.

## Larunbata, 14

**Antzerkia**
Tormeseko Lazaro Txikia antzezlana Malas Pulgas antzerki taldearen eskutik 5 urtetik gorako haurrentzat. Sarrera: 3,15 euro. Kulturetxean, 18:00etan, EUSKARAZ




## Igandea, 15

**Zinea**
Lepel haurrentzako filma. Sarrera: 3, 15 euro. Kulturetxean, 17:00etan, EUSKARAZ

## Osteguna, 19

**Kontzertua**
Musika eskolako ikasleek kontzertu bufoa eskainiko dute. Kulturetxean, 19:00etan

**Zinea**
Los Limoneros filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera: 4,15 euro. Kulturetxean, 22:00etan.

## Liburutegiko ordutegia

Manuel Lekuona kulturetxea

Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara
eta 17:00etatik 21:00etara
Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

## Esazu irratiko programazioa




**Ostiralero programa!**
FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

## Oharrak

**Korrika 16ko bilera**
Otsailak 13, ostirala, korrika bilera izango da. Aurtengo korrikaren prestaketan parte hartzeko bilera etortzera gonbidatzen zaituztegu. Zuen ideiak, gogoak,....bertan denon artean aurrera ateratzeko. Arratsaldeko 3:30tan Muntteri AEK euskaltegian egongo gara. Anima zaitezte !

**Mus Txapelketa Lasartearran**
Lasartearra Elkarteak jakinarazi nahi du irekita dagoela XXXII. Mus Txapelketan izena emateko epea. Interesa dutenek elkartetik pasa daitezke otsailaren 22a bitartean.

**Euskal Inauterien entsaioak**
Euskal Inauterien konpartsako antolatzaileak jakin arazi nahi dute entsaioak hasi direla. Hauek Landaberri BHI egoitzan (REM ohia) egingo dira astearte eta ostegunetan 20:00etatik 21:00etara. Parte hartzeko entsaio egunean agertzea besterik ez duzue, animatu!!

**Zirkoa inauterietan**
Ttakunek deialdia egin nahi die herritarrei Zirko Mundialean parte hartzeko. Izena emateko azken eguna otsailaren 11a izango da eta interesa dutenek Ttakunetik pasa behar dute edo deitu 943 371448 telefonora. Gogoratu parte hartu nahi dezutenoi laguntza eskainiko dizuela elkarteak: ideak garatzeko garaian, jantziaren eredua prestatzerakoan, materiala lortzeko gomendioak... Bide batez herritarrei beraien balkoi eta leihoak dekoratzeko eskaera egin nahi die Ttakunek, herria girotzeko. Nahikoa da koloretako zapi batzuke edo puxikak ipintzea, animatu!

**Erketzeko konpartsaren azken entsaioak**
Orain 2 urte ekialdetik etorritako arabiarrekin eta beraien dantzekin txundituta geratu bazinen eta iaz, Rafaella Carrarekin gorputzeko hezur guztiak astindu bazenituen... ez pentsatu gehiago eta animatu zaitez gure karrozan parte hartzera, ondo pasako duzu eta nahi adina dantzatu.

Izena emateko Erketzeko lokalera joan Zumaburu ikastolan. Bi entsaio soilik geratzen dira, otsailaren 7an eta 14an, arratsaldeko 15:00etatik 16:30era.

**Zabaletako inauterietako konpartsa**
Zabaleta auzolan elkarteak, inauterietarako antolatu duen konpartsan parte hartuko dutenentzako biltzeko deialdia egin du. Bilera bihar ostirala, Antonio Blas plazan iluntzeko 19:00etan izango da.

**Bizilagunen Elkarteko marrazketa eta pintura eskolak**
Lasarte-Oriako Bizilagunen Elkarteak zera jakinarazi nahi du: marrazketa eta pintura eskoletan lekua badagoela. Bertan izena emateko interesa dutenek edo informazio gehiago nahi izanez gero, asteazkenetan eta ostiraletan arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara kulturetxeko bigarren solairutik pasa behar dute.

**Oharrak jartzeko:**
Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
txintxarri@txintxarri.info
www.txintxarri.info

**Dagokionari**

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).



Landaberriko txikienak izan ziren lehenak eskean ateratzen.




Amalur eskolako kideak berriz, ilusioz eta gogoz aritu ziren abesten eta trikitixa jotzen.

# Usadioa mantenduz eskean atera ziren asteazkenean herritarrak

## Landaberrikoak izan ziren lehenak goizean, gainontzeko taldeak arratsaldean atera ziren

TXINTXARRI

Euskal Herriko ohitura zaharra da otsailaren 4an, Santa Ageda bezperan, koplak atez ate abesten ateratzea. Izadiaren egutegiari pixka bat erreparatuko bagenio eta interpretatzen ikasiko bagenu, jakingo genuke, Santa Ageda egunez, gure makilekin lurrari esna dadin eskatzeko garaia heldu dela esaten diogula.

Lasarte-Oria ere, urtero bezala, zenbait herritarrek ez zuten kale egin eta eguraldiak ez bazuen gehiegi lagundu ere, urteroko taldeak atera ziren Santa Ageda bezperan eskean.

Lehenengoak ateratzen Landaberri ikastolako haurrak izan ziren. Herriko kaleetan zehar aritu ziren kopla kantari balkoi azpietan zerbait botatzeko eskatuz. Arratsaldean berriz, ikastolako gaztetxoak baserrietara jo zuten trikitilari eta guzti koplak kantatzera.

Arratsaldean berriz, 18:00etan zuten hitzordua Zabaleta auzoko kideak eta Erketz Dantza Taldekoak. Ordu horretan euri zaparrada galanta bota bazuen ere, atertu orduko abiatu ziren baserrietara abestera.

*Herri osoan zehar, kaleetan nahiz baserrietan, entzun ahal izan ziren koplak*

Ondoren Amalur Trikitixa eta Pandero eskolakoen txanda iritsi zen. Atertu aurretik egoitzan bertan kopla batzuk kantatu ondoren herriko kaleetan zehar ibili ziren abesten.

Makilak astintzen eta abesten ateratzen azkenak Ttakuneko kideak eta bertso-eskolakoak izan ziren. 19:00etan zuten hitzordua eta trikitixak lagundurik herriko taberna eta kaleetan zehar ibili ziren koplak kantatzen.•



Zabaleta auzokoak baserriz-baserri ibili ziren. Arg.: Txema Valles.



Erketzekoak kalean hasi baziren ere, gero baserrietara joan ziren.





Ttakuneko kideak eta bertso-eskolakoak kalean ibili ziren kopla kantari trikitilariak lagundurik. Gero afaltzera Otegi sagardotegira joan ziren; han ere koplak eta bertsoak ez ziren falta izan.